

420.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2022KO-MAIATZA



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



ENRIQUE EGINO

ESPAZIO ZURIAK JANZTEN



I N N O V A

AZPEITIA

HORTZ KLINIKA

ZURITU HORTZAK
ETA PRESTATU
IRRIBARREA
UDARAKO

Jose Artetxe kalea 5
☎ 943-02 59 55



...erantzuna gara ...ALBERDI gara

ALBERDI
INMOBILIARIA

943 16 98 78

Info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

Izarjai
Bizigunea • Kurutzia • Azkoitia



**Eta ez ahaztu, beharrezko duzun aholkularitza
fiskal profesionala doan emango dizugula.**

API

Ekaintra osoroko bisita ezazu: www.alberdi-inmobiliaria.com



MAXIXATZEN 420

2022-MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Anartz Izagirre,
Apustu egingo nuke.
- 6 **Hitz bitan** Lourdes Olaizola,
boiillo egilea.
- 8 **Izpiak eta hizkiak**
Aitor Goenaga, *Kakuteko itsasoa.*
- 10 **Iritziak** Karmen Irizar,
Ezhoiko estrategiak;
Imanol Elezgarai,
Ezinezkoa posible.
- 12 **Elkarrizketa** Enrique Egino,
diseinatzailea eta sortzailea.
- 18 **Iritzia** Jose Ramon Aranbarri,
Bizi testamentua.
- 20 **Bestaldetik** Esther Sudupe,
Azkoitiko Gazteria Zerbitzuko
koordinatzailea.
- 24 **Zakelmari.**
- 25 **Iritzi grafikoa** Itxaro Iraeta.
- 26 **Erretratu** Ana Garmendia,
loteria saltzailea.
- 30 **Plazan bazan.**
- 32 **Aztera begira** Azpiazu botika.
- 36 **Elkarrizketa** Khizar Shahid,
idazlea.
- 40 **Klik!** *Kurutzia, tomate etxea.*
- 44 **Iritzia** Irene Elorza,
Mikroa.
- 46 **Euskara** Miren Alberdi,
Eskerrik asko!
Bertsoa paperean.

MAXIXATZEN

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPETIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Anartz Izagirre
Andoni Elduaen
Ane Olaizola
Nerea Uranga
Diseinu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak**
Aitor Goenaga
Karmen Irizar
Imanol Elezgarai

Jose Ramon Aranbarri
Itxaro Iraeta
Saioa Murua
Irene Elorza
Miren Alberdi
Haritz Alberdi Alberdi
Gorka Larrañaga
Arnaitz Rubio Aprea

**Administrazio
Inprimategia**
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA
Udala



PUBLIZITATEA



YOKOKIROLAK
www.yokokirolak.com
 Kale nagusia 90 - Azkoitia

EGUZKI
 belardenda
 dietetika
 kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA
 Urbetare 9 bis 943-15 00 23 AZPETA

Web proiektuak
 Software ingeniaritza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
 943-85 08 74



Informatika Zerbitzuak
 943-02 63 29
www.etkinformatika.com



arkitekturaestudioa
 santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com



Iturrakko, 7 • 943-02 56 88
 Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98
 AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 82

**ETXEZA
 TABERNA**



Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31



**JARRI
 HEMEN
 ZURE
 IRAGARKIA**

zurt

OGI PARTIDAK
 SANDWICHAK ETA HAMBURGESAK
 DINTSALAKOAK
 RAZIOAK
 GARRARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
 TERRAZA HANDIA ZUZENKO EMANALOKAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

**LATZ
 TABERNA**

ARTISAU PIZAK
 DINTSALAKOAK
 PARTIDAK
 PLAZER KONBINATUAK
 RAZIOAK
 OGITARTOKOAK
 ARDO ESKANTZA ZABALA
 SOBETU ETA ARDO ERRO
 HANEGARRAK
 LANBARRIETAN 06.00 ARDO HENKITA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
 ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
 ORDENAGAILU, MUGIKOR
 ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
 Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatika@gmail.com



Obrak hastera doaz
 IBAIONDO BERRI

ARANBARRI
 INMOBILIARIARI

www.aranbarri.com

Apustu egingo nuke



ANARTZ IZAGIRRE

Lanetik etxerako ibilbide bera egiten dut egunero. Bizi naizen inguruan kotxea aparkatu, espaloia gurutzatu eta etxera. Behin eta berrito, arratsaldero. Ez daramat denbora asko orain bizi naizen auzoan, baina esango nuke ondo integratu naizela bertan. Ohikoak zaizkit dagoeneko auzotarren diosalak, ile-apaintzaileak irribarre egiten dit leihorearen bestaldetik nire islada ozta-ozta ikusten duen arren, eta tabernariak honezkero jakingo du eskatzen dudan ebakiarekin batera oparitzen didan gailetatxoa ez dudala sekula ere jaten.

Gustatu zait betidanik nire auzoa izandakoa utzi eta beste batera lekualdatzea. Nahigabe, orain dela pare bat urtera arte nituen ohiturak aldatu egin zaizkit, eta herriz aldatu ez naizen arren, jende desberdina ikusten dut inguruan, tartean, ordura arte existitzen zirela ere uste ez nuen asko. Atsegin dut aniztasuna, eskolak inguruan izanik haurrak, beren gurasoak eta aiton-amonak inguruan izatea, ostiral iluntzeetan *durum* batekin gustura-gustura parkera doazen nerabeekin gurutzatzea, baina ez zait batere gustatzen muturren aurrean ditugun makina txanponjaleen argiek eta koloreek zenbat herritar erakartzen duten ikustea.

Ez naiz inor apustu etxeen erabiltzaileen profila psikoanalizatzeko, baina iruditzen zait askotan (ez beti) baliabide eta babes gutxien dituzten herritarrak erakartzen dituztela gehien apustu etxeek. Nire buruari behin eta berrito egiten diodan galdera da ea pertsona horiek hor egongo al lirakekeen lan baldintza duinak, bizimodu hobe bat izateko aukera eta beren arazoei aurre egiteko laguntza izango balituzte. Era berean, nire buruari galdetzen diot lanik, familiaren eta lagunaren babesik izango ez banu ez ote nintzen neu ere apustu etxeetako bezero potentzial bilakatuko.

Askotan entzun izan diot jendeari bakoitzaren erabakia dela halako makinetan ibiltzea ala ez. Baina, besteak beste, adingabeko pertsona bat kirol apustuak egiteko makina batean aurrez aurre ikusten duzunean argi gelditzen zaizu aukera hori ez dela askea, eta, gainera, ez lukeela hala izan behar. Tabernari ohi moduan bizpahiru aldiz egokitu zait ordu txikitik makina txanpojeetan orduak zeramatzan norbait bere gogoz kontra etxera bidali beharra, eta sinetsiez adazue, horrek ez du askatasunetik ezer.

Pandemiak eta gerrak modan dauden garaiotan ez genuke ahaztu behar guda batean egon daitezkeela bomba nuklearren pareko arma mingarriak eta doilorrak, kanpotik baino barrutik akabatzen gaituztenak, eta erabakitze askatasuna luxua bilakatzen da pozoia eskura jartzen dizutenean. Apustu egingo nuke joko aretorik ez balitz askeagoak ginatzekeela, auzoak biziagoak lirakekeela eta leihotik kanpora begiratzeak ez gintuzkeela horrenbeste tristetuko. ■■■

**ERABAKITZE
ASKATASUNA LUXUA
BILAKATZEN DA POZOIA
ESKURA JARTZEN
DIZUTENEAN**

"Libre ditudan ordu guztiak igarotzen ditut bolilloa egiten"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANE OLAIZOLA

Bolillo edo ehoziri zale amorratua da Lourdes Olaizola (Azpeitia, 1958) Azkoitiko bizilaguna. Duela 20 urte murgildu zen eskulan horretan, eta "kontaezinak" dira egin dituen lanak. Herriko bolillo egileak astero elkartzen dira zaletasuna praktikatzeko; horietako bat da Olaizola.

Noiz hasi zinen bolilloak egiten?

Betidanik gustatu izan zaizkit bolilloak. Eskulanek, oro har, asko erakartzen naute, baina bereziki bolilloak piztu izan dit arreta. Behinola, San Andres egunez, talde bat parrokiaren aurrean ikusi nuen bolilloak egiten, eta zera pentsatu nuen: 'Nire seme-alabak ikastolara hasten direnean, neu ere bolillo lanak egiten ikasten hasiko naiz'. Halaxe hasi nintzen, duela 20 bat urte, eta egia esan, katigatu egin ninduen.

Nola ikasi zenuen?

San Andres egunean ikusi nuen talde hartara batuta. Ostegunero biltzen gara, eta Pasai Donibaneko irakasle baten gidaritzapean jarduten dugu. Urte batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago elkartu izan gara, baina egun, hamar lagun inguru gara taldean.

Zertan datza bolilloak egitea?

Bolilloak egiteko makina bat erabiltzen dugu, eta aldi berean, egin nahi dugun lanaren eredu bat izaten dugu. Eredu horrek eskatzen dituen hariak jartzen ditugu makinan, eta puntaden bidez, harietara jarraitu eta marrazkia osatzen dugu.

Zer-nolako zailtasuna du?

Tira, logika eduki behar da, baina taldera batu den orok ikasi du, gehiago edo gutxiago, ehoziriak egiten. Batzuek azkarrago ikasten dute, eta besteek erritmo lasaiagoan, baina ez du aparteko zailtasunik.

Bolillo lanetarako, beharrezkoa al da aurretik josten edo makramea egiten jakitea?

Ez, ez dute zerikusirik. Logika izatea da garrantzitsua; jarraitu beharreko ereduak berak erakusten du bolilloa egiten. Noski, bolilloan egin duzun puntada beste zerbaitera lotu behar duzu, mantel edo izara batera esaterako, eta josten

baldin badakizu, errazagoa izango zaizu hori egitea.

Logika erabiltzea ezinbestekoa dela diozu, baina pazientzia ere beharko da, ezta?

Bai, handia, gainera. Pazientzia lantzeko jardun ona da bolilloena, eta horrez gain, erlaxatzen ere laguntzen du; niri bai, behintzat. Denbora pasatzeko ere aukera ona da.

Zer eragiten dizu zaletasun horrek?

Askok gustatzen zait; lasaitasun handia transmititzen dit. Taldean hasi orduko katigatu egin nintzen, eta ordutik, milaka lan egingo nituen. Egindako lanak gortinetan-eta lotzeak lan gehiago eskatzen du, eta beraz, askotan gorde egiten ditut. Azken urtebetean egindako lanekin kaxa oso bat dut beteta. Orain, pazientzia hartu eta horiek lotzen hasiko naiz.

Non lotzen dituzu?

Batez ere gortinetan. Izan ere, landetxe bat dugu, eta gortinei itxura aldatzeko proposa izaten da. Gortinetan ez ezik, izaretan ere lotzen dut, eta erloju bat ere egin nuen behin. Gabonetan Jesus haurrari inguruan jartzeko lanean ari naiz orain. **Zenbat denbora igaro dezakezu bolilloak egiten?** Libre ditudan ordu guztiak igarotzen ditut horretan. Ostegunetan egiten dugun saioaz gain, etxean ere aritzen naiz, egunero ordu erdiz edo ordubetez. Ez badut egiten, zerbait falta dudana sentipena izaten dut.

Ba al duzu lan kutunik?

Batzuek lan gehiago eman didate, besteak ikusgarriagoak dira... baina guztiak dira ederrak; ez dut bat kutunik.

Ostegunetan elkartzen zarete bolillo lanak egiteko. Zer egiten duzue zehazki?

Ahal bada, kafe bat hartzen dugu, eta bolilloa egiten dugun bitartean, tertulian ere aritzen gara. Elkarrekin egoteko txokoa da.

Sanandresetan, berriz, erakustaldia egiten duzue.

Ehun bat bolillo egile elkartzen gara, inguruko herrietakoak ez ezik, Irundik, Leitzatik eta Bilbotik ere etortzen dira. Jendeak gure lana ikusteko aukera izaten du, eta polita izaten da. ■■■



Kakuteko itsasoa

ARGAZKIA ETA TESTUA: AITOR GOENAGA

Gero, niri amak esaten zidan ba... esateak ez du balio. ■■■







Ezohiko estrategiak

Aste Santua baino hamar egun lehenago ari naiz testu hau idazten. Orban ultraeskuindarrak hauteskundeak irabazi berri ditu, eta Europan Putinek gerra krimenak egin dituen eztabaidatzen ari dira, nazioarteko epaitegiak epaitu egin beharko al lukeen erabakitzeko. Telebistan ikusten diren irudiak makurragoak dira egunik egun, eta ez da epe motzean konponbiderik ikusten. Asaldatuta dago jendea, Putinen alde ilun hori eta begiratu batean errusiarrek inbasioarekiko duten indiferentzia ulertu ezinda. Kezkatuta batzuk, asaldatuta asko eta sinetsi ezinda hamarretik bederatzia.

Egunak 24 ordu ditu, ordea, eta kezkak dosifikatu egin behar dira. Koronabirusak utzi dio

albistegietan nagusi izateari, eta klima krisiak hurrengo Glasgow baten zain egon beharko du.

Bitxia da honek guztiak duen *deja-vù* usaina, ez baita hau herrialde batek beste bat inbaditzen duen lehenengo aldia. 40 bat urte dira klima krisiarena entzuten ari garela, goi-bilera guztietan hartzen dira gero beteko ez diren konpromisoak, eta oporrak iristen direnean, arazo larri horiek lausotu egiten dira.

Segi dezakegu orain arte bezala, baina badakigu laister izango dela beste inbasio edo gerraren bat eta klima kontuak lastu egingo direla. Geure burua engaina dezakegu esanez Ukrainako inbasioak sakon eragin digula eta hurrengoan politikariak eta diplomaziak ez dutela huts egingo. Pentsa dezakegu ingurumenak

barrenak estutu dizkigula eta aurrerantzean norbanakoek zein herrialdeek goitik-behera aldatuko dutela jarrera.

Ba horixe, segi dezakegu geure burua engainatzen. Edo orain arte probatu ez ditugun konponbideak martxan jartzen saia gaitetzke. Politika eta bilera serioek behar dugun emaitzik ematen ez dutenez, proba ditzagun arinak eta alferrikakoak diruditen estrategiak.

Ezgauza izan behar du politikoak boto-emaile guztiek txalotuko luketen zerbait ez lortzeko. Ez dago gerraren alde egingo duen inor, eta hala ere, gerra eta indarkeria da hainbat politikok beren herrialdeko arazoak konpontzeko proposatzen duten irtenbidea. Garbi dago konponbide bakarra indarkeria, heriotza eta bazterrak txikitzea

HAUXE BAI JENEROA!



dela uste duen pertsonak ez duela balio herrialde bateko gidari izateko. Behar lukeen gaitasun mailatik behera dago, ez da guztion onbidea lortzeko gauza. Galdeketa eta kezkarik gabe kendu beharko genuke kargutik eta beste irtenbide batzuk proposatzeko gai den jendea jarri.

Klima kontuei dagokienez, dagoeneko ez da nahikoa zaborra sailkatzea edo kotxea partekatzea. Egiten dugun orok eragiten dio klimari, eta gehienetan, onerako ez. Edozer gauza egin aurretik neur dezagun egiten dugun horrek nolako aztarna ekologikoa uzten duen. Neur dezagun, klima krisiari buelta ematekotan, zenbaterainoko aztarna ekologikoa utz dezakegun, eta horren arabera erabaki zer egin daitekeen edo ez.

Aztarna ekologikoa neurtzeko tresna martxan dago, edozeinek erabil dezake, gutako bakoitzak jakin dezake zenbaterainoko kaltea egiten ari zaion ingurumenari.

Bizimodua guztiz aldatzea ekarriko luke lana, aisialdia eta egunerokoa aztarna ekologikoaren arabera antolatzeak, jakina! Baina, agian, horrek ekarriko luke Glasgowkoa bezalako goibilerak lortu ez dutena. Orain arte politikarien artean ohikoa den profilak ez luke balioko, beste ikuspegi bateko jendea beharko genuke.

Bai, gauza asko aldatuko lirake. Eta zer? Inbasioa, gerra, sufrimendua eta atzera bueltarik gabeko klima larrialdia saihesteak ez al du horrelako ahaleginik merezi? ■■■

ERREMATEA



IMANOL ELEZGARAI

Ezinezkoa posible

Antzinako Greziako pentsalariei aitortzen zaie "politika posible denaren artea da" esaldia; desiratzen dena baino, lortu ahal dena bilatu behar dela, alegia. Milaka urte geroago, pentsaera hori barru-barruraino sartu zaigu, "hauxe da dagoena" moldaketa modernoarekin.

Mesfidati izan behar dugu agintariengandik "legeak hala dio, ezin besterik egin" bezalakoak entzuten ditugunean. Borondateak beti ahal du onartu nahi digutena baino gehiago. Ikus nola datozen hilabeteetan, "hauteskunde urtea" hastean, lehen ezinezko zenak magiaren poderioz balizkoaren jantzia jantziko duen, egun handira apain-apain iristeko.

Azkoitiko San Jose egoitza, kasu. Orain Gipuzkoako Foru Aldundiari ederki ordainduta eman behar bazaio, arauak derrigortuta, jakin beharko da noren sinadura daraman arau horrek. Herriak hala eskatuta ere, kalera jaisterik ez badago, ez bada proiektu estrategikoa, azaldu beharko da beste zer egin ahal izateko baztertzen den aukera hori. Ez dakit; kiroldegi berria ere izan zen proiektu kolosala, eta egon zen nahikoa baliabide egiteko, ala? Nork daki, akaso errege magoei modura kanpainen ozen eskatuta... ■■■



"Ezer sortu aurretik zeinentzako den jakin behar da"

ENRIQUE EGINO DISEINATZAILEA ETA SORTZAILEA

30 urte zituenetik Azpeitian bizi da, baina gehien jaioterria eta azkoitiarrak maite ditu Enrique Eginok. Amaren aldetik Xardonekoa da; aitaren familia, berriz, Baldakoa du. 16 urte zituela hasi zen diseinatzaile, eta 69 urte izan arren, partzialki erretiroa hartuta, baina diseinu estudioan jarraitzen du lanean. "Bestela zer egin behar dut?", dio.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Bost hamarkadatik gora daramatza lanean Enrique Eginok (Azkoitia, 1953), 16 urterekin hasi zen Danonan, enpresako diseinatzailearen laguntzaile. Urte horietan guztietan, diseinatzailearen lana eta "jendearen mentalitatea eta filosofia" asko aldatu direla dio. Bere lan jarduera, ordea, ez du aldatu; eskuz egiten ditu oinarrizko diseinuak estudioan duen marrazketarako mahaian. Hala ere, teknologia ez du baztertuta, lanerako erreminta du hori ere. "Webgunea badut, baina sare sozialetan jartzen ditut argazkiak eta. Gero, bat edo bestea ikusi dutelako deitu egiten didate, eta halako bideetatik ere sortzen zaizkit lan eskaerak. Orain gutxi, nik margotutako koadro bat saldu dut Frantzian", kontatu du. Diseinatzailea eta margolaria da, sortzailea; orobat, "autodidakta" denean.

Azpeitan bizi eta lan egin arren, azkoitiar hizkera ez duzu galdu.

Ez, nik azkoitiarrez hitz egiten dut orain, eta bizi osoan; Azkoitia maite dut gehiena, azkoitiarra naizelako, azkoitiar peto-petoa. 16 urte nituenetik

nabil Azpeitian; 1962. urtean Danonan hasi nintzen lanean, orduan Landeta auzoan zegoen lantegia. Kuadrilla ere Azpeitian izan dut, baina Azkoitian ere banituen eta baditut lagunak eta kuadrilla. Azkoitian daukat familia osoa, eta askotan joaten naiz Azkoitira.

Azkoititik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Azkoitiarrak. Azpeitiarreko desberdinak gara zentzu askotan: artistikoki, pentsakera irekiagoa dugu... Azpeitiarrak baino gutxiago erreprimitu gara azkoitiarrak, zentzu guztietan. Hori bizi izan dut nik, behintzat.

Azkoitiko Eskola Profesionalean ikasi zenuen.

Mekanikako ikasketak egin nituen han. Garai hartan, Azkoitian Eskola Profesionala bakarrik zegoen, eta denok haraxe joaten ginen ikastera. Gure attitte zenak tailerra zeukan, eta hark hala esaten zidan: "Hik ez duk buzoarekin lan egingo". Hark antzeman zidan, bai horixe.

Ikasketak bukatu eta Danonara lanera. Nolatan?

Margotzen eta marrazten zekien bateren baten bila joan ziren Eskola Profesionalera Danonakoak. Nik txiki-txikitatik margotu eta marraztu izan dut, eta neure kasa dekorazioak-eta egiten nituen, gustukoa nuelako. Orduan, Danonan diseinatzailearen





Enrique Egino estudioan alfonbren diseinuekin eta laginekin.

laguntzaile gisa hartu ninduten lanerako; garai hartako diseinatzaile bezala, orduko eran. Sasoi hartan, ekoizten ziren altzariak liburutegi handiak ziren, diseinutik gutxi egiten zen. Gero, Danona beste kooperatiba batzuekin (Gurola, Maiak, Lan Mobil –lehen Cooperativa Obrera–...) elkartu zen, Urkide taldea sortu zuten, eta altzarien diseinatzaile hasi nintzen lanean.

Zer ikasi zenuen Danonan lanean jardundako urteetan?

Nik dena ikasi nuen han, gauza guztiak egiten utzi zidaten Danonan, eta hori asko izan zen niretzako. Diseinu asko egiteaz gain, proiektuak garatzen, despiezeak egiten eta makinetan sartzeko despiezeak prestatzen ikasi nuen han. Diseinu bat egindakoan, inportanteena izaten da jakitea egin duzun hori produkzioan sar daitekeela. Izan ere, egin dezakezu ez dakit nolako diseinu bat, eta gero hori nola egiten den jakin ez.

Noiz hasi zinen diseinu estudioa muntatuta zeure kabuz lanean?

Hamasei urte egin nituen lanean Danonan. 32 urterekin, handik irten eta beste bi lagunekin, Mailu Azkuerekin eta Manolo Juaristirekin, Estudio D3 muntatu genuen. Azpeitian ipini genuen estudioa, Mailuren etxean. Gero, handik Pastorkua gainera joan ginen, Jose Artetxe kalera, eta handik Arana kaleko lehengo Estudio D3era. Azken urteetan, berriz, gaur egungo tokian [Arana kalean, baina beste lokal batean] ari naiz lanean.

Artista, diseinatzailea, sortzailea...

Nik denetik sortzen dut: eraikinen barruko eta kanpoko diseinuak egin izan ditut, alfonbrak, koadroak, altzari klasikoak, modernoak, haurrentzako altzariak, logelako altzariak, altzari azoketarako standak... Garai batean, altzarigintzako azoka handi bat egiten zen Valentzian [Herrialde Katalanak], eta urtero hilabete inguru pasatzen nuen han, Urkide taldearentzat diseinatutako standak muntatzen. Lan eta diru asko zegoen orduan, eta gutxi gorabehera nahi nuena egiten uzten zidaten, eta egiten nituen halako zorakeria batzuk; urte haietan lan egitea jolasean ibiltzea bezala zen niretzako.

Zuen kontura hasi zinetenean, halako diseinu garaikide batzuk egin zenituzten, ezta?

Garai hartan garaikideenak egin genituen! Azkoitian Dean taberna egin genuen, Azpeitian Fideo de Mileto taberna, Santi Lazkano kirol denda... Proiektu garrantzitsu asko egin genituen sasoi hartan. Donostian ere aritu nintzen lanean: Isabella pizzeria, Marcial ile apaindegia, Konplot diskoteka... Isabella itxita dago, baina beste guztiek irekita jarraitzen dute, oinarrian guk egindako diseinua mantenduz. Niretzako hori oinarritzakoa da. Niri jendea datorkit galdezka: "Orain zer eramaten da?". Niri gaur modan dagoena ez zait gustatzen, biharko pasatuta dagoelako, ez delako boladan egongo. Niri diseinuak pertsonalizatzea gustatzen zait, eta nik nire diseinuak nahiz proiektuak egiteko nire estiloa daukat.



Enrique Egino bere estudioan. ARNAITZ RUBIO APREA

"ASKOK DIOTE ZURIA HOTZA DELA. BAINA NIRETZAT ZURIA EZ DA KOLOREA, ZURIA ESPAZIO BAT DA"

"BETITIK EGIN DITUT KOADROAK NIK, MARGOTZEA ASKO GUSTATU IZAN ZAIT"

"LAN ASKO IZATEAK EZ NAU ESTUTZEN, LANA FALTA DUDANEAN ITOTZEN NAIZ NI"

Eta espazio bat edota altzari bat diseinatzeko orduan, polita eta praktikoa nola uzartzen dira?

Dena egin behar izaten da. Lehenik eta behin, jakin behar da zeinentzako sortu behar duzun proiektua, eta pertsona horiek ezagutu behar dituzu. Bat baldin bada pixka bat hippya, nik etxea gauza hippyekin ipiniko diot, baina gauza bakoitza bere lekuan jarrita, ez bat hemen eta bestea han. Halako eskema bat egin, eta halako etxe bat egokitu behar da, baina pixka bat minimalizatua. Askok esaten didate zuria hotza dela. Baina niretzat zuria ez da kolorea, niretzako zuria espazio bat da. Koloreak dira gorria, berdea... Beltza ere espazio bat da, baina espazio beltza pixka bat unagarria da. Lanerako lokal bat ematen didatenean, hori niretzako orri zuri bat bezala da. Orri zuri baten gainean edozer gauza marraztu dezaket, edozer gauza nabarmendu dezaket... Orri marroi batean marrazki bat eginez gero, irudi hori ez da hainbeste nabarmenduko.

Hotza ala beroa?

Hotza eta beroa, osagarriekin osatu behar dira bi kontzeptu horiek: alfombra eder bat jarrita lurrean, sofa polit batekin eta, horma zabala badaukazu, koadro handi bat ipinita...

50 urte diseinatzaile lanean. Urte hauetan lana asko aldatu al da?

Dena aldatu da, lana egiteko modua eta dena. Orain, beste mundu batean bizi gara. Danonan hasi nintzen garai hartan, telebista-eta sukaldean egoten ziren, orduan saloirik edo egongelarik ez zuten etxeek. Saloiak jauregietan zeuden, baina gu bizi ginen etxe normaletan ez zegoen egongelarik. Gero, familiak txikiagotzen hasi ziren, eta etxeak funtzio desberdinetarako gelek in eraikitzen hasi ziren, eta gela bat egongela izateko jartzen zuten. Ondorioz, Danona eta hemengo altzari enpresak egongela horiek ekoizten eta muntatzen hasi ziren. Liburutegia, sofa, liburutegiaren barruan telebista, altzari bat; alegia, egongelari zegokion espazio horretarako altzariak sortzen hasi ziren. Booma izan zen hori. Ondoren, bereziki haurrentzako logeletarako altzariak nahiz bikoteentzako logeletarako altzariak egiten hasi ziren. Garai bateko etxeek logela asko edukitzen zituzten, etxe berean bizi izaten zirelako aiton-amonak, seme-alabak eta bilobak, eta horiek denak sartzeko etxe handi samar bat behar izaten zen. Gerora hasi ziren etxe txikiagoak eraikitzen, bikotea beren seme-alabekin bizitzen hasi zelako. Hori guztia aldatzen joan zen eran, barruko dekorazioa ere moldatzen joan zen. Horrez gainera, sasoi hartan jende

guztiak egiten zuen lana, mila pezetarekin [6,01 euro] gauza asko egiten ziren, eta jendeak etxea pixka bat dotore jartzeko dirua aurreztuta edukitzen zuen. Beste filosofia edota pentsakera bat zuen jendeak, altzari ona erosten zuten, eta altzari onak dirua balio du. Orain, ordea, altzari onak edukitzeari ez dio garrantzirik ematen jende gazteak, nahiago dute altzari merkea jarri eta eskiatzera joan. Gure attitue zenak hala esan ohi zuten: "No dinero, no broma" [Dirurik ez, txantxartik ez].

Krisi ekonomikoak ere izan dira bitarte horretan.

Bai, krisi mortalak izan dira, bai horixe. Nik 3D estudioa ireki nuenean, altzari italiar garestiarekin hasi nintzen lanean, eta dirudun jendearentzako egin dut lan asko. Baina bestelako jendearentzako etxe asko ere ipini ditut, gauza ona denoi gustatzen zaigulako; poliki-poliki eta aurrezten joan ahala etxea atontzen joan diren bezeroak ere asko izan ditut. Gauza onak eta benetako diseinuak jarri dituzte horiek. Egun, diseinukoa dela edozer gauzari esaten baitzaio, eta edozeinek esaten du diseinatzailea edota dekoratzailea dela. Telebistan agertzen diren ez dakit zeinen alabak edota semeak dira arropa, bitxi edota eraikinen barruko diseinatzaileak; horiek ez dakite ezer egiten, eta denek diote diseinatzaileak direla, eta gustu ona daukatela. Zergatik? Gaur egun Interneten dago informazio guztia. Lehen katalogoak egoten ziren, eta orain katalogo horiek guztiak Interneten daude, eta etxe onetako altzarien kopiak Txinatik ekartzen dituzte, baina bestelako kalitate batekoak dira. Adibidez, besaulki batek, kanpotik polita izanda ere, barrutik izan behar du ona, eta horretarako ordaindu egin behar da. Altzari onek dirua balio dute.

Eraikinen barrualdeak diseinatzeaz gain, osagarriak ere sortzen dituzu zuk?

Bai, bai, koadroak, alfonbrak, altzariak... diseinatu eta sortzen ditut. Etxe batzuek altzari modularrak ekoizten dituzte, eta nik egiten dudana da modulu batzuk eskatu eta horiek eraldatzea. Adibidez, nik modulu zuri bat eskatzen dut, eta ate eta kaxoi banari urdin kolorea ematen diet, eta hankak altzairu herdogaitzezkoak egiten dizkiot. Altzari horrek bukaeran dituen forma eta kolorea nik nahi bezalakoak dira. Beraz, nik diseinatu al dut altzari hori? Bai, era horretako beste altzaririk ez dagoelako merkatuan. Lanparak ere sortzen ditut; tulipak Donostian egiten dizkidate, eta kasu batzuetan, lehengusuaren bidez Japoniatik ekarritako oihalak erabili izan ditut horiek egiteko.

Alfonbren aurreneko bilduma orain dela hamar-hamabi urte sortu nuen, Japan Collection izenekoa. Espazio bat diseinatzerakoan kolore jakin bateko alfonbraren bat behar badut, neuk sortzen dut, eta Portugalen egiten dizkidate gero.

Japoniara egindako bidaia batean ateratako argazkietan oinarrituta sortu zenuen alfonbren bilduma. Bidaiak al dituzu inspirazio iturri?

Inspirazioaren kontua jarduna da dena! Niri bidaiaitza asko gustatzen zait, hori egia da. Baina Japoniatik ni ez nintzen etorri alfonbren bilduma bat sortu behar nuela eta erabat inspiratuta. Nik argazki asko egiten ditut, egunero, eta bidaia guztietan ateratzen ditut argazkiak, milaka. Behin bat etorri zitzaidan kolore berdeak zituen alfonbra baten eske. Japonian egindako argazkiak hartu, eta haiek pixelatzea erabaki nuen, eta gero erretratu haien pixelatuetan fijatu nintzen. Estudioan alfonbretarako artilearen koloretako laginak ditut, eta horiek denak zenbakitu eta banakabanaka jarri nituen irudi bakoitzaren gainean. Era horretan sortu nuen Japoniako gaiekin koloretako alfonbren bilduma berezia.

Etxeak, bulegoak, enpresetako korridoreak, kanpoaldeak, ile-apaindegiak, tabernak... diseinatu izan dituzu. Gelditzen al zaizu zerbait egiteko?

Prostituzio etxe bat ere egin nuen nik; Azpeitiko Larre zena. Egia esanda, denetik egin dut nik.

Eta benetan harro zauden lanen bat?

Egingo dudan hurrengoa. Ez dakit zein izango den, baina beti hurrengoa.

Erreferenterik ba al duzu zure lanak egiteko orduan ala zeure erara aritzen zara?

Edozein erokeria bururatzen zait niri, eta otu ahala egin egiten ditut. Koadroak ere halaxe sortu ohi ditut.

Txiki-txikitatik margotu eta marraztu izan duzu.

Bai, bai. 1972. urtean egindako koadro klasiko bat neukan gurasoen etxean, Mozart eta beste neska bat ageri ziren. Koadro hori gurasoen etxeko sarrerako dekoraziorako margotu nuen nik. Betitik egin ditut koadroak nik, margotzea asko gustatu izan zait, olioan-eta asko pintatutakoa naiz.

Oraindik jarraitzen al duzu margotzen?

Olioarekin lan egiteko denbora asko behar da, eta orain, akrilikoan eta teknika errazagoetan margotzen dut, baina segitzen dut pintatzen.

Zu lanean hasi zinuenean dena eskuz egin beharko zen, baina gaur egun teknologia lagun izango duzu lanerako.





Enrique Egino disenatzailea eta sortzailea. ARNAITZ RUBIO APREA

Nik ez nekien ordenagailua pizten ere! Eta beste gauza askotan bezala, autodidakta izan naiz horretan ere. Dena den, nik nire saltsan segitzen dut, planoak eskuz eginez, lan hori egitea gustatzen zaidalako. Atsegin dut paper zuria hartu eta burutik irteten zaidana bertan irudikatzen joatea. Nahiago dut ordenagailuz konposizioak egitea baino, paper zuriaren gainean ikustarazten joatea. Ez naiz izan batere teknikoa, ez matematikoa, ez zenbakiekin jardutekoa, nirea sorkuntza izan da.

69 urte. Erretiroa hartzeko aukera, egun osoa zuretzako...

Zer egin behar dut bada egun osoan? Egun gutzia pintatzen, alfonbren diseinuak egiten, altzariak sortzen... jardungo nuke, eta gero lekua falta horiek guztiak jartzeko. Horregatik jarraitzen dut estudioarekin lanean. Erretiro partziala hartuta nago, eta gorputzak laguntzen

didan bitartean lanean jarraitzeko asmoa daukat. Nik, etxean... Goizero egiten dut kirola, eta zaintzen naiz. Baina, gero, zer egin behar dut? Ez naiz irakurzalea, gehiago naiz irudiak-eta ikustekoa. Aldizkari ugari iritsi berri zaizkit, baina egun aldizkarietan dena berdina da, dena. Diseinurako nire kontzeptua ez dago horietan: traste pila bat, pladurra, beltzez margotuta, ardoen prezioak... Lan asko izateak ez nau estutzen, lana falta dudanean itotzen naiz ni, gaixotu egiten naiz. Esku artean proiektuak eta obrak ditudanean, harat eta honat nabilenean, zer adin daukadan konturatu ere egin gabe ibiltzen naiz, denbora pasatzen denik ere ohartu gabe. Ni nire lanean nabil gustura. **Zeinek esango zuen, 16 urterekin Danonan hasi eta...**

Hain ondo biziko nintzela, gogoia ematen didan hori egiten... ■■■

Bizi testamentua



JOSE RAMON ARANBARRI

Hitzek beraiek esaten duten bezala, aurretiazko borondatea prozesu bat da, non pertsonak, bereziki bere kabuz erabakitze gai ez den unerako, etorkizunean zer osasun zainketak jaso edo baztertu nahi dituen planifikatzen duen.

Aurretiazko borondateen dokumentua egiteko eskakizunak nabari egin du gora; Gipuzkoan soilik, Osasun Saileko Ikuskatzaileztan mila bat dokumentu egiten ari dira urtean.

Bizi itxaropena munduko altuenetakoa da Euskadin, baina bizitza mugatua da. Bizi izaten ditugun hamarkadetan, poztasunak, alaitasunak eta tristurak izaten ditugu, baina denbora horretan ere jasango ditugu gaixotasuna eta heriotza. Gaixotasuna eta heriotza bizitzaren zatiak dira; ez dago bizitarik gaixotasunik eta heriotzarik gabe, eta ez heriotzarik edo gaixotasunik bizitarik gabe. Gero eta zaharrago hiltzen gara, baina horrek berarekin dakar gaitzak hartzeko aukera handiagoa izatea.

Pertsona orok, bere bizitzako ikuspuntuetan eta pentsamoldeetan oinarrituta, bizitza bera nahi duen bezala kudeatzeko eskubidea dauka; ondorioz, aurretiazko borondateak, oinarri horiek ardatz hartuta, hausnarketa eta informazio prozesu baten parte dira. Prozesu horretan, pertsonak etorkizunean jaso edo baztertu nahi dituen osasun jarduerak planifikatzen ditu, bereziki bere kabuz erabakitze gai ez den unerako. Prozesu horri esker, gaixotasunari eta heriotzari aurre egiteko modua eta bere buruarentzat egokitzat jotzen duena kudeatzeko aukera dauka, heritapenik gabe eta behar bezala informatuta.

Gaixo batek aurretiazko borondateen dokumentua eginda edukitzeak erraz ditzake osasun profesionalak hartu behar dituzten erabakiak. Era berean, medikuntza praktika on bat helarazteko behar-beharrezko tresna dela diot, kontuan izanda pazienteek beren zainketa planetan parte hartzeko eskubidea dutela eta osasun arloko profesionalak parte hartze hori bermatzeko erantzukizun profesionala eta legala dutela. Bestalde, dokumentu horren bidez, senideei gure ordeztu erabakitzearen mina aurrezten eta sinesmenen arteko desberdintasunak uxatzen dizkiegu, eta gure ordua iristen ari den azken une horietan, familian izaten diren emozioen intentsitateak, iritzi subjektiboak eta abarrek sor ditzaketen gatazkak saihesteko balio du.

Ondorioz, aurretiazko borondateen dokumentua gida oso baliagarria da osasun arloko profesionalentzat, guretzat zein ingurukoentzat. Izan ere, bizitzaren amaierarako autonomia errespetatzea norberaren eskubidea da, eta inork ez dakigunez etorkizunak zer dakarkigun, badaezpada ere bizi testamentua eginda edukitzea komenigarria da. ■■■

**BIZITZA BERA NAHI
DUEN MODUAN
KUDEATZEKO
ESKUBIDEA DAUKA
PERTSONA OROK**

DAGOENeko SALGAI

Amets egiteko ondua da

- Igerilekua, lorategia eta txokoa duen urbanizazio pribatua.
- 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak eta solariuma duten atikoak.
- Terraza zabalak etxebizitza guztietan, bista irekiak.
- Etxebizitzatik igogailuan sarbide zuzena duten garajeak.

www.izarjai.com

grupo eibar
Ez mabilizaita

AZKOITIKO GRUPO EIBAR-EN BULEGOA
Julio Urquijo Etorbidea 30

618 614 541
comercial@grupeeibar.com
www.grupeeibar.com

BULEGOA

IMH LANBIDE HEZIKETA FORMACION PROFESIONAL

heziketa zikloak

Erdi eta Goi mailako zikloak
Especializazioak

Elgoibar
Maiatzak 7
11:00etan
Informazio saioa
Hartu lekua!

Fp

Hogei urte gazte azkoitiarren zerbitzura

ESTHER SUDUPE AZKOITIKO GAZTERIA ZERBITZUKO KOORDINATZAILEA

Azkoitiko Gazteria Zerbitzuko koordinatzailea da Esther Sudupe. Duela hogei urte hartu zuen kargu hori, eta hutsetik hasitako proiektua garatuz joan da urtez urte. Urte horietan guztietan udalak egindako apustua eskertu du Sudupek, eta egungo beharrei erantzuteko erronka handiak daudela esan du.

Testua: **Andoni Elduaien**. Argazkiak: **Andoni Elduaien eta utzitakoak**.

Esther Sudupek (Azkoitia, 1971) hogei urte bete ditu Azkoitiko gaztetxoenen zerbitzura; 2002. urtean hartu zuen hark herriko Gazte Zerbitzuaren ardura, eta harrezkero, proiektua sendotzen joan da urtez urte. Lanpostu horretan hasi aurretik, ordea, beste hamaika pasarte bisitakoa da Sudupe. Pertsonen arteko harremanetan gehiago sakontzeko helburuarekin, esaterako, Txolarte taldean hasi zen 14-15 urte zituela. "Beti eduki izan dut pertsonen arteko harremanen inguruko kuriositatea, baita pertsonen arteko desberdintasunei buruzkoa ere. Nerabetan, edozertarako kuriositatea eta sentsibilitatea izaten da, eta barruko har horrek bultzatuta hasi nintzen Txolarten". Sudupe egun dena izateko oinarriak jartzen hasia zen ordurako; izan ere, Txolarten egindako ibilbideak bultzatu zuen irakasle ikasketak egitera, zehazki behar berezien inguruko diplomatura gauzatzera. "Artean Euskal Herrian ez zegoen ikasketa horien gradurik, eta Madrilera joan nintzen".

Denboraldi batez ikasketaz ikasketa ibili zen Sudupe. Lan finkorik ez zuen artean, hainbat lan uztartu zituen Gizarte Hezkuntzako ikasketekin. Gradua amaitu bezain laster hasi zen familia hezitzaile lanetan. Hain zuzen, orduan egin zuen lehen lotura egun diharduen lan munduarekin. Hasteko, Donostiako Udalaren Gazteria Sailean

aritu zen lanean, Martutenen, eta gero, Gazteriako teknikari postua hartu zuen Donostian bertan. Segituan piztu zitzaion azkoitiarrari "beste zerbait" ikasten hasteko gogo. "Psikopedagogia ikasketak egiten hasi nintzen, eta irakasle lanetan aritu nintzen hainbat herritan. Bueltan-bueltan Gazte Zerbitzuetan lan egiteko aukera sortu zitzaidan berriz. Azpeitian urratu nuen bide hori lehendabizikoz". Bi urte egin zituen han Sudupek, eta segituan, Azkoitiko Gazterian hasteko aukera sortu zitzaion.

Azkoitiko proiektua "hutsetik" hasi zuen Sudupek. "Bakarrik eta egun erdiko kontratuarekin hasi nintzen lanean. Gazte Informazio Bulegoa martxan jartzea izan zen lehen mandatua, baita nerabeentzako dinamizaziorako zerbait egitea ere. Udalak sentsibilitate berezia zuen gaiarekiko, eta garbi izan zuten haurrentzat zerbait behar zela herrian. Orduz geroztik, martxan dira ludoteka, topalekua eta Gazte Zerbitzu Bulegoa". Orain, proiektua "sendotu" egin dela nabarmendu du koordinatzaileak. Gainera, "harrotasun pixka bat" ere badu Sudupek; izan ere, egungo bere lankideak Gazte Zerbitzuetatik igarotakoak dira. "Hezitzaile lanetan hasi nintzen ni, eta guztia bakarrik egiten nuen hasiera hartan. Ondorengo urteetatik, baina, talde bat dut alboan, eta sekulako sostengua ematen dio horrek





Sudupe, zenbait haur eta gurasorekin, 2011ko Mugikortasun Astean. UTZITAKOIA

proiektuari. Talde horretako kide sentitzen naiz". Egun, koordinatzaile lanak egin behar izaten ditu Sudupek, eta zerbitzu guztietan lanen bat egin izana da bere ibilbideko "lorpenik handiena".

Hiru adarren koordinazio buru

Azkoitiko Gazteriaren pean daude Abarketatxo ludoteka, Artxamendi topalekua eta Gazte Zerbitzu Bulegoa (GZB). 4 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutako zerbitzua da ludotekarena, 13 eta 18 urte bitartekoentzako da topalekua, eta herriko nerabeei, gazteei, haurrei, familiei zein elkartei zuzendutako zerbitzua GZB.

Sudupe hiru adar horien koordinazioaz arduratzen da egun, nahiz eta hirurek funtzio desberdinak dituztela nabarmendu duen. Ludotekari buruz hitz egin du lehenik: "Ludotekatik ematen den zerbitzua hezitzailea da. Nahiz eta jendeak haurra ludotekara jolastera bakarrik joaten dela uste duen, familien beharrak asetzeko prest eta beti irekita dagoen udal zerbitzu komunitarioa da. Beharrak familia guztiek dituzte, zaintzari lotutako egitekoak ez baitira errazak". Dena dela, zenbait familia ez dietela haurrek izan ditzaketan beharrei erreparatzen uste du. "Haurra jaiotzean, familia batzuetan ez da ohikoa umea pertsona moduan kontsideratzea; haurra askotan objektu bezala hartzen da, hark dituen beharrei erreparatu gabe. Horregatik, gurasotasunari lotutako zerbitzua eskaintzea da ludotekaren helburuetako bat".

Artxamendi topalekuan, berriz, gurasoak bigarren mailako subjektuak dira

koordinatzailearentzat. "Gurasoek badute protagonismoa, baina ez ludotekan izan dezaketean adinakoa. Garai horretan, nerabeei askatasuna deskubritzen dute, bai lanerako, bai harremanetarako. Azken horretarako ezinbesteko pieza da hezitzailea. Haurrek askatasun gehiago izateak kezka areagotzen du gurasoen artean, kezkarri edo beldurrari bakarrik begiratzen baitiote askotan". Bigarren koskan egonagatik, gurasoen kezkek entzuteko, horiek

bideratzeko nahiz orientatzeko zerbitzua eskaintzen dute topalekuan Sudupek azaldu duenez.

Gazte Zerbitzu Bulegoa, aldiz, proposamenak egiteko gunea dela nabarmendu du azkoitiarrak. GZBan elkartegintza zerbitzua eskaintzen dute, eta hezkuntzan lana aurkitu nahi duten gazteak ere jasotzen dituzte. Aldiz, beste ikasketa batzuk egindakoa den nahiz herrira begira proiekturen bat gauzatuko duen inor gutxi joan ohi da hara.

"Hezkuntzarekin loturarik ez duen jendea –ingeniaritza, osasuna eta Lanbide Heziketa aipatu ditu, besteak beste– gutxitan joan izan da GZBra, eta herrian proiekturen bat gauzatzeko irrika duen gazteak ere gutxi. Gazteek ikuspegi hori edukiko balute, Azkoitia ziurrenik askoz ere herri abegikorragoa izango litzateke. GZB horretarako irekita egon arren, zaila da erabiltzaileak horretaz jabetzea, udal zerbitzua kontu konkretu batekin lotzen baita". Ideiak dituzten gazteei zerbitzura gerturatzeko eskatu die Sudupek.

Zirimolan sartutako gizartea

Haurrak eta gazteak aldaketa sakona bizitzen ari direla uste du koordinatzaileak. Egun, jendeak guztia "azkar" egin nahi izaten duela dio. "Edozein ekintzatan parte hartu behar badugu, motzean egin behar izaten dugu; epe luzeak gutxiago toleratzen dira". Era berean, herri jakituria generazioz generazio transmititzen ez dela jakin dio koordinatzaileak. "Ez dugu asmatu gazteei balioak, konpromisoaren konstantzia eta tradizioa transmititzen. Iruditzen zait zenbait



Sudupe hainbat gazterekin tailer batean, 2004an. UTZITAKOIA

"TALDE BAT DUT ALBOAN, ETA SEKULAKO SOSTENGUA EMATEN DIO PROIEKTUARI"

"EDOZEIN EKINTZATAN PARTE HARTU BEHAR BADUGU, MOTZEAN EGIN BEHAR IZATEN DUGU"

"EGUNGO HAURREI, GAZTEEI ETA NERABEEI EZ DIEGU DESKUIDURIK EGITEN UZTEN"

gauza blindatu egin beharko genituzkeela, gure kultura, ohiturak eta tradizioa babesteko. Kontzientzia falta dugu".

Suduperentzat aldatu den beste kontua forma da, eta "benetakotasuna" zein "zintzotsuna" garrantzitsuak direla uste du. Lanketa horretan bide luzea egin daitekeela dio. "Norbanako bezala konpromiso falta ikusten dut, eta horrek zerikusia du azkartasunarekin. Adibidez, jendeari kasu egiteko modua aldatu egin da, eta ekintza hori bera garrantzitsua da, bestela pertsona izatetik aulki bat izatera igarotzen baikara". Oro har, "umetuta" ikusten du gizartea Sudupek, eta gurasoen begiradatik aritu da ondorengoa esateko: "Egungo haurrei, gazteei eta nerabeei ez diegu deskuidurik egiten uzten, ez diegu uzten ikertzen, azken finean, hegoak moztzen dizkiegu. Alde batetik, gizartea oso babestuta ikusten dut, baina beste aldetik, babesgabe asko. Dikotomia hori oso agerikoa da".

Lehengoa eta oraingoa

Suduperen egungo zantzuak haurtzaroko antzekoak dira, eta orduan nolakoa zen deskribatzeko garai hartara egin du jauzi. "Oso irekia nintzen, eta jendearekin zein lagunartean ibiltzea beti gustatu izan zait". Haurtzaroko irudi alaiak gogoratzen ditu, eta gustuko ditu horiek, baina egungo begiradatik berreskuratuta, "garai grisak" bizi izan zirela esan du. "*Molotov koktelak* edozein lekutan izaten ziren, eta barrikadak sarri-sarri Julio Urkixon. Era berean, Azkoitia, erlijio kutsu handiko herria izanik, markatu egin gaitu egin beharrak eta konpromisoak. Halere, beti eduki izan dut jendearekiko sentsibilitatea". Bide batez, nabarmendu du "oso aktiboak" izan zirela orduko gazteak. "Beti geunden plazan, kalean. Aktibismo edo desira hori faltan sumatzen dut orain, nahiz eta badakidan orain ere badirela gazte aktiboak".

Kultur arloari erreparatuta, aldiz, kontsumista dela dio Sudupek, nahiz eta beti publikoaren ikuspuntutik aritu. "Gustatzen zait antzerkiak eta kontzertuak ikustera joatea. Musika ere asko gustatu izan zait, inguruan musikari asko izan ditut eta. Artista izan ez banaiz ere, antolaketan eta aritzea asko gustatzen zitzaidan. Gaztetxean asko ibiltzen ginen, eta Zinetogramen oso era militantean hasieran". Bidaiatzea ere atsegin du Sudupek, beti izaten baitu leku zein kultura berriak ezagutzeko eta leku zaharrak "birkonkistatzeko" grina. ■■■



ZERBER BURDINDEGIA

BEHAR DUZINERAKO ALOR-GUZTETAKO GAIAK AURKUNTUKO DITUZU GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZTATEA, MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA, TOFLUJIAK, EPRODAMENDUAK, SARFALAK, GILTZAK, ETA ABAR...

ZERBERREN "ZER BER ETA HURAXE"

NAGLUISIA, 30 - 20720 AZKOITIA - 938 36 81 25
www.ferreteriazerber.com

NON DAGO ZAKELMARI?



Apirileko Maxizatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 28. orrialdean zegoen ezkatututa.

Maxizatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Ainhoa Beristain** bazkideari egokitu zaio Ogi Berri okindegiaren **zortzi lagunentzako tarta**. Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txekea zozkatuko du Maxizatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna maiatzaren 20a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxizatzen.eus helbide elektronikora.

ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolatea txurroekin eta terraza zabala.

ESKAINITZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behea • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54
 FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO





30 urte ilusioa banatzen

ANA GARMENDIA LOTERIA SALTZAILEA

Ana Garmendia azkoitiarra ia 30 urtez aritu da Kale Nagusiko La Fuente de la Fortuna loteria administrazioan lanean. Zoriz sortu zitzaion han lan egiteko aukera, eta maitasunez gogoratzen du egindako ibilbidea; herriko belaunaldi askorentzat administrazioaren irudi nabarmenena bilakatu da.

Testua: **Saioa Murua**. Argazkiak: **Saioa Murua eta Maxixatzen**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Azkoitiar askok oroituko dute Ana Garmendia (Azkoitia, 1956) Kale Nagusian dagoen La Fuente de la Fortuna loteria administrazioaren kristalaren atzealdean; izan ere, 30 urtez jardun du han lanean, loteria, bonoloto eta bestelako joko guztien bitartez herritarrei ilusioa banatu nahian. Zoriak pisu handia duen, eta hein handi batean, ezezaguna den munduan, administrazioaren arduradun kargua hartu zuen Garmendiak 2015ean, ordura arteko ugazaba zendu zenean. Hiru hamarkadaren ondotik, erretiroa hartu berri du.

Atzera begiratzeko eskatuta, Maria Lurdes Kintelaren izena –administrazioaren hasierako jabea– etorri zaio gogora Garmendiari. Azkoitian loteria administrazioa irekitzeko baimenak eskatu zituen hark, eta horiek eskuratuta, ateak ireki zituen La Fuente de la Fortunak. Garai hartan, ordea, loteriaren salerosketa ez zen telematikoa, eta dena eskuz egin eta apuntatu beharra zegoen. Jabeak, orduan, lagun batzuen alabari laguntza eskatzea erabaki zuen: Garmendiari. "Etorkizunera begira ezer garbirik esku artean ez nuenez, harekin lanean hasteko eskaintza iritsi zitzaidan", adierazi du

Garmendiak. Haurra zenean lan horretan arituko zela esan izan baliote, ez zukeela sinetsiko adierazi du azkoitiarrak, baina ez da damutzen hartutako erabakiaz: "Bizitzak horrelako aukerak aurrean jartzen dituenean, aprobetxatu egin behar dira, eta horixe egin nuen".

Arduradun postuari dagokionez, honako hau adierazi du Garmendiak: "Konpromiso handia eta tentsio uneak eragin ditzake karguak, baina oso gustura jardun dut". Hain zuzen ere, ondo gogoan du tentsio handiko gertaera bat: "Herriko emakume batek loterian botatako diruarekin izandako gaizki ulertu baten ostean, ondoren erosi nahi zuen loteria ez ordaintzea erabaki zuen, nahiz eta berez ordaintzea zegokion". Garmendiaren esanetan, bere ogibideak jendearekin hartu-eman handia izatea eskatzen du, eta herritar asko ezagutu ahal izan du horri esker. Hark kontatu duenez, askotariko bezeroak dauden bezala, egindako akatsak ere askotarikoak izan daitezke: "Abonatu baten boletoa beste bati eman eta kaltetuari deskuidatu egin garela esan beharrak tripako mina sorrarazi digu". Horrez gain, Gabonetako zozketaren bueltan pilatzen zaio lan karga handiena. "Tentsio handiko uneak dira, salmentako egunak zein sariak ordaintzekoak; izan ere, diru ugari ibiltzen da





buelbaka. Hain zuzen ere, horixe izan da jubilazioa atzeratzearen arrazoietako bat; izan ere, jakin banekien administrazioa oso esku onetan zegoela, baina lan karga oso handia zen".

Tentsioa eta erantzukizunak alde batera utzita, ogibideak duen alderdi goxoenari begira jarri da Garmendia, eta une horretan bertan ohartu da alderdi "zailena eta ederrena berberak" direla: "Jende askorekin izan dut hartu-eman, eta harreman estua sortzen da bezeroekin, onerako zein txarrerako. Gainera, Azkoitia bezalako herri batean herritarrekin sortzen den harremana oso gertukoa bilakatzen da".

66 urteko azkoitiarrak maitasun handiz gogoratzen du aurreko jabea, Kintela, eta are handiagoz hark eman zion aukera. Lana egiteko moduaz eta urte hauetan guztietan jasotako esperientziaz, berriz, honako hau dio: "Ofizio hau jardunda ikasten da". Bide horretan, teknologiak izan duen aurrerapena eskertu du azkoitiarrak. "Garai batetik hona, ogibide hau ere aldatu egin da, eta eskerrak... Lehen, Espainiako Estatuari erosten zenion loteria kopuru bat, eta gero, saldu egin behar zenuen guztia, soberan geratzen zirenak ezin baitziren itzuli. Ardura handia zen erosi beharreko kopurua kalkulatzeko, gero galerarik ez izateko". Egun, berriz, soilik aurrez eskatutako zenbakiekin edo zenbaki abonatuarekin bakarrik gertatzen da hori, "zorionez", eta bestelakoekin ez dago inolako arazorik itzultzeko. Bestalde, loteria, Euromillones edota bonolotoa *online* erosteko aukera dago egun, baina

Garmendiak jakinarazi du bere administrazioan ez dutela antzeman digitalizazio horren eragina: "Kontu horietan ere, herri tradizionala da Azkoitia. Loteria fisikoki esku artean izatea gustatzen zaie bezeroei oraindik". Garmendiaren ustez, loteria "adinean aurrera doan jendeak" eskuratzen duelako gertatzen da hori, horiek nahiago dutelako "betiko moduan" erostea. "Mundu hau ezezaguna da orokorrean, eta gazteek gero eta gutxiago menperatzen dute. Badago asko kontrolatzen duenik ere, baina orokorrean, jokoan, sarien eta aukeren berri izatea ez da arruntena".

30 urte, milaka istorio

30 urtek milaka anekdota utzi ohi dute, eta Garmendiak oso garbi oroitzen ditu bizi izan dituen une bitxienak. "Behin, ijito familia bateko

Ana Garmendia

- **Adina:** 66 urte.
- **Lanbidea:** Jubilatu aurretik loteria saltzailea.
- **Loteria banatzailea izan ez banintz...** Jendearekin hartu emana izatea eskatzen duen beste zerbituetan arituko nintzatekeen.
- **Erretiroan...** une honetan behintzat, neure buruari denbora eskaintzen diot.



patriarka etorri zitzaigun Gabonetako loteriaren zenbaki jakin bat eskatzera: 00077. Bere herrian jakinarazi omen zioten gure administrazioak esleituta zuen zenbakia zela hori, eta bere herritik Azkoitiraino etorri zen familia, zenbaki horren bila. Zenbakia, ordea, jada ez zegoen gure administrazioan, herriko harakin bati saldu baikenion. Asko tematu zen, ordea, eta azkenean, harakinak esan zigun zenbakia emango zigula. Zenbaki horri buruz galdezka, gizonaekoak esan zigun senide bat sendatu zuen sasimediku batek eskatu ziola; mirari hura diruz ordaindu beharrean, zenbaki hori zuen loteria dezimoa eskatu zion mediku hark, eta familia osoak zenbaki hura nahi zuen". Hori gutxi ez eta, zenbaki hura beste inori ez saltzeko eskatu zion Garmendiari. "Ondoren, beste klan bat agertu zen zenbaki berarengatik galdezka, eta gertaerak klanen arteko iskanbila sortu zuen.

Egoera oso deserosoa izan zen administrazioak langileentzako". Algara artean oroitu du, gertatutakoa jakin zutenean, herritar askok zenbaki horren aldeko apustua egitea erabaki zutela, eta azkenean, zenbaki horrek ez zuela inolako saririk eman Gabonetako zozketan.

Sariak aipatuta, administrazioak banatu zuen lehenengoa oroitzen du ilusio handienez. Herriko hamar pertsonari tokatu zitzaizen sari hura, eta horietatik bederatzi ezagutu bazituzten ere, hamargarrena nor izan zen ez dute jakin; horrek "xarma bereziagoa" ematen dio sariari.

Martxoan, erretiratzeko garaia iritsi zitzaion Garmendiari: "Jendearekin nuen harremanaren falta sumatuko dut gehien. Herritarrek jubilariaz disfrutatzeko esan didate, eta lasai nago, administrazioa esku onetan uzten dudala badakidalako". ■■■

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako lagabiltuok-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.



KODUARI
ZAKARRA



ZUREN JARRAIAK
BAZTERREAN




BARRUPEN
TOSKAT



www.bertako.eus





IRUDI ENGAINAGARRIAK

Ietik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hortuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.


Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?

HAMAİKA IKUSTEKOAK

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.





Zein da zein? Hegazti guztiei 'txori' esatea ez da oso zehatzza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.

Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zen dieten jakingo duzu.

Hizki-Marrazki

A B C D E F G H I J
 K L M N O P Q R S T
 U V W X Y Z

Sudokua

Saia edo putrea hegazti sarraskijalea da, oso ezaguna. Bete itzazu hutsuneak PUTREA hitza osatzen duten hizkiez (P, U, T, R, E eta A). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela letra, zutabe eta arua bakoitzeko.

	T	E		
E	P		U	A
	R		E	
	T		R	
R	A		T	E
E	U	R		

Handitik txikira

Ordenu itzazu txitak handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienari 6.

Mende osoko historia, bizirik

TESTUA ETA ARGAZKIAK: ANE OLAIZOLA

Saltokira sartu orduko ohartzen da bat ez dela edonolako komertzioa; historia luzea duela, eta oraindik orain, bizirik dagoela. Hara sartu orduko ohartzen da bat saltokiak bere sustraiak iltzatuta dituela, belaunaldien arteko joan-etorriaren lekuko bihurtu dela. Azpiazu botika da. Herriko aurreneko farmazia izan zenak ehun urte bete berri ditu, eta mende osoko historia bizkarrean, haren ardura izan duen familiak negozioaren lekukoa eskutik eskura jakin du eramaten.

Gaur-gaurkoz, familiako hirugarren belaunaldia den Begoña Azpiazuk kudeatzen du botika, eta haren seme Luis Fernandez ere bertako langile da. Izan ere, ez bairik gabe, botikarien familia da saltokiari izena ematen diona, eta horren erakusgarri da farmaziaren atzealdean txukun-txukun jarrita duten orlen sorta: Joaquin Azpiazu sortzailearena, haren seme Joaquin Azpiazurena, haren alaba Begoña Azpiazurena eta haren seme Luis Fernandezena. Aitortu dutenez, ez zekiten aurtan botikaren mendeurrena zenik, eta Juan Bautista Mendizabal herriko kronistak eman zien horren berri. Sortze egunaren berri ez, baina ama-emeek badute botikaren hastapenen berri: "Aitonak Madrilen egin zituen Farmazia ikasketak, eta ondoren Valdecillan (Espainia) eta Zarautzen (Gipuzkoa) aritu zen lanean. Bien bitartean, aitonaren lagun batek lan egiten zuen Azkoitiko botikan, eta hark negozioa eskualdatu zuenean hartu zuen aitonak botikaren ardura", azaldu du Begoñak.

Haren hitzetan, garai hartan botikak prestatzea zen botikariaren jarduna. Aitonak horretarako hainbat gailu zituen farmaziaren atzealdean prestatuta zuen laborategian, hala nola motrailuak, balantzak eta mikroskopioak. "Poteetan osagai aktiboak gordetzen ziren, eta herritarrak hara joaten ziren medikuak agindutako errezetarekin. Aitonak, errezeta horietan oinarrituta, osagaiak hartu eta motrailuarekin sendagaiak prestatzen zituen. Garai hartan, guztia prestatu egiten zen". Hark adierazi duenez, orduko farmaziak ez zuen egungoarekin zerikusirik: "Aitonak burua altxatuko balu, ez luke egungo funtzionamendua erreala denik sinetsiko".

"Gazterik" hil zen farmaziaren hastapenean aritu zen botikaria; 62 urterekin. Orduan, aitaren izen-abizen berberak zituen semeak hartu zuen negozioaren ardura, Joaquin Azpiazuk. Botikaria ez ezik, analista



Begoña Azpiazu eta Luis Fernandez, farmaziaren aurrean.

ere izan zen Azpiazu, eta haren alabak ondo gogoan du aitak nahiago izaten zuela bigarren zeregin horretan aritzea. "Ez zitzaion gustatzen farmaziaren aurrealdea, batez ere analisiak egiten jardun zuen. Uren analisiak-eta egiten zituen, eta herriak batez ere jardun horregatik ezagutu zuen aita. Izan ere, bailarako analista bakarra zen, eta inguruko herritarrak harengana joaten ziren analisiak egitera". Askotariko azterketak egiten zituen hark, eta esaterako, haurdun al zeuden jakiteko ere, harengana jotzen zuten emakume askok. Begoñak gogoratzen duenez, egun "pentsaezina" den moduan ebazten zuen aitak emakume haiek haurdun zeuden edo ez: "5 bat urte izango nituen orduan. Gogoratzen naiz berogailu baten ondoan igel ugari izaten zituela aitak, eta emakumeek eramandako pixa igelei injektatzen zien hark. Uste dut igelak arrautzak jartzen baldin bazituen, emaitza positiboa izaten zela. Sinestezina dirudi, baina garai hartan, hura zen emakumea haurdun zegoen edo ez jakiteko modu bakarra".

Horrez gain, etxetik mugitu ezin zuten baserritarrengana joaten zen Azpiazu sendagaiak eramatera, baita komentuetara ere: "Aitak beti esaten zuen hura zela klausurako moja-etxera sar zitekeen gizonezko bakarra", esan du, barrez. Fernandezek ere gogoratzen ditu aitonak kontatzen zituen anekdotak, eta presente du botikaren atzealdeko haren irudia. "Bere ondoan egoten nintzen, kremak nola egiten zituen ikusten". Semeak esanari, zera erantsi dio amak: "Ikaragarri gustatzen zitzaion lan hori; osagai aktiboak hartu, pisatu eta nahasketak egitea". Joakin Azpiazu aita-semeen ondorengo bi belaunaldiek "edan" dute etxean ikusi duten horretatik, eta argi dute



Joaquin Azpiazu aurreneko botikariaren mikroskopioak, farmaziaren atzealdean.

beren aurrekoak botikariak izan ez balira, beraiek ere ez zuketela ogibide hori ikasiko. "Zortea izan dut aita botikaria izan zelako. Oso langilea zen, eta eredu ona izan da niretzat", adierazi du Begoñak.

Oroitzapenak ikusgai

1960ko hamarkadan eraikinean izan zen sute baten eraginez, Kale Nagusiko beste eraikin batera lekualdatu behar izan zuten farmazia hainbat hilabetez. Ezbeharrak kaltetutako eraikina bota behar zutela eta, farmaziaren sabaian zegoen margolana galdu egin zuten: "Aingeru batzuk zeuden margotuta, oso polita zen", gogoratu du Begoñak. Dena den, oroitzapenez betetako botika da Azpiazu, saltokian hastapenetatik ziren hainbat altzarik eta objektu bere horretan segitzen baitute oraindik ere: kanpoaldean dagoen Azpiazu errotilua duela ehun urteko berbera da; mostradorearen atzealdean dagoen altzari ikusgarria ere botikaren sorrerakoa da; farmaziaren sortzaileak erabiltzen zituen mikroskopioek zein poteek leku berean, laborategian, jarraitzen dute, baita sortzailearen semeak baserrietara joateko erabiltzen zuen maletatxoak ere. Beste altxor bat ere bada bezeroen begi bistan, zer den inork gutxi jakingo badu ere: Joakin Azpiazu lehen botikariak ateratako tenia zizare parasitua kristalezko pote batean, formoletan blai.

"Farmaziak asko aldatu dira –azaldu du Fernandezek–. Egun, bezeroentzako zatia handia izaten da, eta botika-ostekoa, berriz, oso txikia, geroz eta gutxiago erabiltzen delako. Lehen, alderantziz izaten zen, laborategiko lan asko egiten zelako. Gure farmazian, ordea, atzealdeko eremua mantendu egiten da". Izan ere, ama-semeek ez dute zalantzarik farmaziek azken urteetan "bilakaera handia" izan dutela esaterakoan, eta adierazi dute ordenagailuaren etorrerak "iraultza" eragin zuela haien funtzionamenduan. "Ordenagailuek oso azkar irauli zuten farmazien funtzionamendua, sendagaiei, eskaerei



Fernandez, bere birraitonak erabiltzen zituen poteei begira.

zein botiken harrerei zegokienez", azaldu du Begoñak. "Lehen, botiken eskaerak liburutxo batean apuntatzen genituen, banan bana. Eskaera egin eta hurrengo egunean jasotzen genituen horiek. Orain, egunean bitan jasotzen ditugu, eskatu eta ordu batzuetara". Egun, zerbitzu "azkarra eta hobea" ematen dutela adierazi dute, horretan "asko lagundu" baitie digitalizazioak. Baina txanponaren bestaldeari begiratuta, hein batean gertutasuna galdu dutela ere uste dute. "Lehen, bezeroak farmaziara sartu eta sendatuta irteten zutela esaten zen; bestelako miresmen bat zioten botikariari", dio Fernandezek.

Urte zailak ere igaro ditu, ordea, Azpiazu botikak, eta ama-semeentzat "oso gogorak" izan dira COVID-19aren pandemia urteak. "Bat-batean etorri zen birusa, eta ezin genuen kalera irten... Jende asko ez zen osasun zentroetara joatera ausartzen, eta farmaziara etortzen zen, guk ez baikenituen ateak itxi. Izan ere, anbulatorioek ez zuten aurrez aurreko arreta eskaintzen; oso desegokia izan zen hori. Gogoratzen naiz 80 urteko agure bat etorri zitzaidala bizkarrean oso itxura txarra zuen grano batekin. Mugikorrarekin argazkia atera eta bidaltzeko esan zion sendagileak. Negargurea eman zidan". Izurriari aurre egiteko material eskasiak, berriz, "zoramena" eragin ziela adierazi du hark: "Hasieran eskularruak eskatzen zituzten, ondoren musukoak, gero antigeno testak... Eta ez baldin bagenituen, haserretu egiten ziren herritarrak; jendeak antsietate handia zuen".

Farmaziak "lehen lerroan" egon direla uste dute bi botikariek, jakin badakitelako herriari "zerbitzu publikoa" eskaintzen dietela. Geroa ere bide horretan ikusten dute ama-semeek, beti ere garai berrietara egokituta. Izan ere, sustriak ahaztu gabe, aurrera egin nahi dute: "Herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute, eta atzean geratzen bazara, jai duzu". ■■■■

"Behar nuen nire burua Lon pertsonaian isladatuta ikustea"

KHIZAR SHAHID IDAZLEA

Hamazazpi urte besterik ez baditu ere, dagoeneko lehen liburua idatzia du Khizar Shahidek. *Lon y el despertar del nuevo King of Mean* izena du sortu duen obrak, eta hainbat telesailetan zein liburuan oinarritutako *fanfic*-a da. Irakurgai dago liburua sarean, *libroskinglon.com* webgunean.

Testua eta argazkiak: **Anartz Izagirre**

Zortzi urterekin iritsi zen Khizar Shahid Azkoitira (Kamoke, Pakistan, 2005). Pakistandarra da jaiotzez, eta bizitzako lehen urteak Xàbian (Alacant, Herrialde Katalanak) egin ostean, Euskal Herrira lekualdatu zen. Ordutik Azkoitian bizi da, eta euskaraz hitz egiteko duen abilezia berbera erakutsi du idazteko, 16 urterekin, iaz, lehen liburua idatzi baitzuen. Liburua, besteak beste, bere bizitzaren islada dela dio Shahidek. **la urtebete igaro da *Lon y el despertar del nuevo King of Mean* liburua argitaratu zenuenetik. Zer sentazio duzu?**

Liburua idatzita, nire burua isladatu nahi nuen, eta, egia esan, lortu dut. Zazpi hilabete inguru pasatu dira liburua argitaratu nuenetik, eta orduan nituen oztopo pertsonal batzuk gainditzea lortu dut. Liburu horrek ez du oraingo nire egoera definitzen, eta orain bigarren zati bat idazten ari naiz. Lan horretako *Ecos del pasado* kapituluak Azkoitira etorri nintzeneko garaia aipatzen dut: zer-nolako arazoak izan nituen lagunak egiteko, nola sentitu nintzen eta zer jarrera hartu nuen horri aurre egiteko. Atal hori oso dentsoa da, sei

kapitulutan dago banatuta, eta horietako bakoitzak bere ideia nagusia du.

Zein da istorio horren muina?

Obrak bi oinarri ditu. Alde batetik, liburuaren beraren sorrera, eta, bestetik, King of Meanen sorrera. Liburuaren sorrera 2020ko uztailean izan zen, Amino plataformako *fanfic* lehiaketa batean parte hartu bainuen. Ez nekien zerri buruz idatzi, baina barrutik ateratzen zitzaidan imaginazio horri heldu nion. Bi kapitulu idatzi nituen, eta jada ez nekien nola jarraitu istorioarekin; beraz, *fanfic* bat nola egin azaltzen zuen publikazio bat irakurri nuen. Momentu horretan bizitzen ari nintzena oinarri hartuta, zortzi pertsonaia sortu nituen, eta horiei King of Mean deitzen diet. Niretzako pertsonaia idealak dira, eta horietako bakoitzean nik eduki nahi nuen zerbait ikusten nuen. Pertsonaia guztiak liburuetatik eta telesailetatik ateratakoak dira.

Hain justu, lana hainbat libururen eta telesailen crossover bat dela diozu zure webgunean. Zeintzuk izan dira zure erreferentzia nagusiak?

Beyhadh-etik Maya pertsonaia aukeratu dut, *Desafío Champions Sendokai* telesailetik Lon eta Chronam-Yatt, *Code Lyoko* telesailetik William,



Steven Universe pelikulatik Espinela, *Enredados* telesailetik Cassandra, *Descendientes 3* filmetik Audrey eta *Bakugan Battle Brawler* telesailetik Masquerade.

Liburu fisikorik ez duzu argitaratu, baina atal guztiak eskuragarri jarri dituzu webgunean. Garai berrietara egokitzen ari garen seinalea al da hori?

Badut asmoa liburua euskarri fisikoan argitaratzeko, baina ezingo nuke saldu egile eskubideen kontuagatik; ezin dut hortik etekin ekonomikorik atera. Hala ere, niretzako eta oparitu nahi diedanentzako argitaratuko dut liburu fisikoa.

Istorioko pertsonaien irudiak zuk zeuk egin al dituzu?

Ez, hiru artista kontratatu nituen horretarako. Marrazkiak egiten oso txarra naiz; liburuaren azala egiten saiatu nintzen, baina ez nuen horrekin aurrera jarraitu. Halere, oraindik ere gordeta ditut probak, eta *making-of* dokumentalean argitaratuko ditut.

Eta liburuko kapituluak independenteak al dira?

Batzuk bai, eta besteak, ez. *Ecos del pasado* kapitulua, esaterako, besteak irakurri gabe ere irakur zenezake, eta gauza bera gertatzen da *Paraíso e Infierno* atalarekin. Dena den, nik liburua hasieratik irakurtzea gomendatzen dut.

Zure lanean agertzen diren zatietariko batzuk autobiografikoak dira. Nola sentitu zara horiek idazterakoan?

Nire hasierako ideia ez zen nire burua liburuan isladatzea, baina bai Lon protagonistak eta biok komunean zerbait izatea. Pixkanaka-pixkanaka, denbora eta istorioa aurrera joan ahala, ni nolakoa naizen onartzen hasi nintzen, eta besteen iritziengandik apartatu nintzen. Behar nuen nire burua Lon pertsonaian isladatuta ikustea. King of Mean niretzat ideala da, eta horra iritsi nahi nuen.

Zer-nolako antzekotasuna dute, beraz, Lonek eta Khizarrek?

Fisikoki *outfit*-ak partekatzen ditugu, eta, pertsonalki, bakardadearen aurrean nola sentitu diren, zer jarrera hartu duten egoera horren aurrean eta abar. Liburuaren amaieran Lonek bere helburua lortzen du, eta bere eskuetan du besteak sunsitzeko aukera, baina ez du egiten. Bizitako guztiak ikuspuntu berri bat ematen dio, eta hori da momentu horretan nik isladatu nahi nuena.

Liburuan mezu psikologikoak daudela ere badiozu. Nolakoak?

Ecos del pasado kapituluan, adibidez, gauza asko ageri dira. Atal horretan antsietateaz, depresioaz

eta bullyingaz hitz egiten dut, baita norberak bere burua ez maitatzeaz eta norberaren iritzia besteengan oinarritzeaz ere. Horrez gain, *Paraíso e Infierno* zatian mundu honek nola funtzionatzen duen ageri da; boteredun pertsonak besteak nola zapaltzen dituzten boterea lortzeko eta zapaldu horiek nola borrokatzen duten beren eskubideak lortzeko. Pertsonaia bakoitzaren istorioak mezu bat du.

Nolakoa izan da zuretzat obra honen sormen prozesua?

Ez nuen espero horrelakoa izango zenik. Nire hasierako asmoa lanaren zati bat Amino plataforman publikatzea zen, baina erabiltzaile batek esan zidan liburua idatzi beharko nukeela, istorioa ona iruditu baitzitzaion. Ez nuen uste liburu bat idatziko nuenik, baina pixkanaka-pixkanaka horretan hasi nintzen. Ez nuen argi non argitaratuko nuen, eta hainbat aukera aztertu nituen; azkenean, igande arratsalde batean saltseatzen ibili ostean, Google Sites topatu nuen. Ez nekien ezer gune horren inguruan, baina apurka-apurka webgunea informazioz osatzen joan nintzen.

16 urte zenituen lana idazten hasi zinenen. Ez da ohikoena zure adinean liburu bat argitaratuta izatea. Betidanik izan al duzu gustuko idaztea?

Betidanik gustatu izan zait imaginatzea eta amestea, baina ez idaztea. Eskolan, esaterako, idazlanak egiterakoan beti fantasiako gauzak idazten nituen. Orain arte, ordea, inoiz ez nintzen hasi istorio bat sortzen.

Kasu honetan *fanfic* bat egin duzu, baina ba al duzu asmorik zeure pertsonaia propioak dituen istoriorik idazteko?

Lonen mundu hau trilogia bat izango da, baina trilogia hori ezin izango dut saldu egile eskubideengatik; beraz, pertsonala izango da. Horretaz aparte, baditut beste istorio batzuk ere buruan, baina ez dakit horiek noiz gauzatuko ditudan.

Gazteleraz idatzi duzu lana. Ba al duzu etorkizunean euskaraz ezer argitaratzeko asmorik?

Bai. Gustatuko litzaidake euskaraz eta ingelesez ere zerbait publikatzea. Horrek, ordea, lan handia eskatzen dit, eta momentu honetan nire intentzio nagusia gauza berriak sortzen joatea da. Dena den, bizitzako beste momenturen batean eta besteen laguntza dudanean, saiaturiko naiz bai euskaraz eta bai ingelesez zerbait sortzen.

Irakurleen ekarpenak jasotzeko gune bat egokitu duzu webgunean. Nolakoak izan dira orain arte jaso dituzun iritziak?



Khizar Shahid.

"ASMOA DUT LIBURUA FISIKOKI ARGITARATZEKO, BAINA EZIN DUT SALDU EGILE ESKUBIDEENGATIK"

"BETIDANIK GUSTATU IZAN ZAIT IMAGINATZEA ETA AMESTEA, BAINA EZ IDAZTEA"

"LIBURUA EZ DA PERFEKTUA, ETA INOIZ EZ DA PERFEKTUA IZATEKO SORTUA IZAN"

Bi motatakoak izan dira. Alde batetik, igartzen da iritzia eman duten pertsona horietako askok ez dutela beharbada gaitasun handirik iritzi luzeak idazteko; gazteak, esaterako, ez dira hasten paragrafo luzeak idazten. Garatutako ekarpen oso gutxi jaso ditut; hala ere, nahiago dut zerbait jasotzea ezer ez jasotzea baino. Bestalde, bookstagrammer-en 28 ekarpen jaso ditut. Iritzi horiek guztiak positiboak dira, nahiz eta gauza negatiboak ere azaltzen dituzten. Normala da hori, liburua ez baita perfektua, eta inoiz ez da perfektua izateko sortua izan.

Zer eskatuko zenieke liburua oraindik ere irakurri ez duten horiei?

Gustatuko litzaidake denek liburua irakurtzea, ez famatua izan nahi dudalako, liburu horren bitartez gauza asko kontatzen ditudalako baizik. Pertsona guztiek esperantza izan dezaten lortzea nahi dut liburu honen bitartez, bizitzako une batzuetan gaizki pasatu eta zure burua gorrotatu arren, barruan dugulako dena gainditzeko boterea. Uztailetik aurrera saiatu nintzen liburua azkoitiarrei zabaltzen, eta azkoitiar asko sartu dira webgunera. Horrek hazten laguntzen dit. ■■■



Kurutzia, tomate etxea

Azkoitiko San Martin auzoan dago kokatuta Kurutzia baserria. Betidanik baratze gintzan aritu dira etxe horretan, bertako produktuak egunero-egunero landuz. Barazki eta fruitu ugari lantzen badituzte ere, ezagunak dira herrian han sortzen dituzten tomateak.

Testua: **Andoni Elduaie**n. Argazkiak: **Andoni Elduaie**n eta **utzitakoak**.

Tomatea, maiatzetik abendura

Tomate landarea lurrean landatzen dute, eta ondoren, goraka behar bezala hazi dadin, bakoitza bi lokarrirekin lotzen dute sabaira. Otsailetik uztaile bitartean, hilabetez hilabete egiten dituzte landaketak, udazkenaren amaieran ere tomatea izan dezaten. Prozesuan, tomate landareak zaintzea egokitzen zaie baserritarrei; izan ere, bakoitzari kimuak kentzen pasatzen dituzte egun eta ordu gehienak. Tomate landareak kalez kale dituzte banatuta negutegietan, eta bakoitzak bere ur tutu malgua du, landareek ura jaso dezaten.



Lurra prestatu eta landatu

Lurra prestatzen dute lehenik. Lurra harrotu eta untzien zimaurreekin ongarritzen dute. Behin hori eginda, lurra lantzeko makinekin nahasten dute guztia, eta horrela, lurra berrituta gelditzen da. Tomate landarea Kantabriako (Espainia) landarezale batek ekartzen die etxera, eta Kurutzia baserrikoek landatu egiten dute.



Erleak eta zomorroak

Landareari lorea zabaltzea da tomate alea sortzeko lehen urratsa, eta lore horiak hazitakoan, erleak zabaltzen dituzte negutegietan, horiek tomate loreak polinizatu ditzaten. Gainera, ekoizpen integratuaren barruan lan egiten dute Kurutzia baserrian. Landareetan sortzen diren zomorro izurriei aurre egiteko, mamorroak eramaten dituzte negutegietara. Modu ekologikoan lan egiten ez badute ere, ahalik eta tratamendu gutxien erabiltzen saiatzen dira.



Negutegietako tomateak dira

Kurutzia baserrian tomateak landatzeko bi negutegi dituzte, nahiz eta baratzeko beste produktu batzuentzako beste bi ere badituzten. Negutegi handiena 3.000 metro koadrokoa da, eta otsailetik, 2.200 tomate landare dituzte han sartuta. Tomato landarez betetako bigarren negutegia 800 metro koadrokoa da, eta han 650 landare landatu dituzte. Landare bakoitzak, ordea, bi adar ematen ditu, eta horregatik, lortzen duten fruitu kopurua bikoitza da. Ondorioz, gaur-gaurkoz 6.000 tomate landare dituzte landatuta baserrian.



Lau-bost hilabeteko prozesua

Otsailean landatu zituzten lehen landareak, eta gizakiaren garaiera ingurura iristen direnean, zuhaitzaren puntak moztu egiten dituzte, beheko tomate landareek eguzki izpiak behar bezala jaso ditzaten. Horrela, tomateak pixkanaka heltzen joaten da. Eguraldiak laguntzen badu, maiatzean jasoko dute lehen tomate uzta.



Gorritutakoan, jaso

Tomateak kolore gorrixka hartzen duenean haste dira lehen aleak biltzen. Halere, gorri-gorriak izan baino lehen jasotzen dituzte. Bezero bakoitzaren gustua egitea zaila izaten denez, badaezpada ere hobea izaten da garaiz ibiltzea.

Azoketan eta dendetan

Bilketa egindakoan, maiatzetik azarora bitartean azoketan eta inguruko herrietako dendetan saltzen dute tomatea Kurutziakoek. Produktuen salmenta zuzena egiten dute Gipuzkoako hainbat azokatan. Hain zuzen, astearteetan Azpeitiko azokara joaten dira, tomate garaian; asteazkenetan, Ordiziara; ostegunetan, Urretxura; eta larunbatetan, Tolosara nahiz Zumarragara. ■■■



Mikroa



IRENE ELORZA

Tematzen dira gerra batzuk minutuz minutu kontatzen eta beste batzuk guztiz ahazten eta ahatarazten. Tematzen dira albistegiak biktimen adierazpenekin betetzen eta haiei mikroak muturren aurrean jartzen ahalik eta istorio negargarrienak biltzeko. Eta bai, hori ere kazetaritza da, baina ni nazka-nazka eginda nago. Gertutasuna, gizatasuna, gerraren ondorio latzak jende arruntarengan ("zibilak") erakusteak gugan eragina sortzeko nahi horrek gogaitzen nau. Hainbeste alditan, hainbeste ikuspuntutik erakutsi dizkigute gerraren krudelkeriak, hunkitzeko gaitasuna galtzen ari garela sentitzen dudala. Suposatzen da haur, emakume eta agureak erakutsita, haien istorio txikiak kontatuta, hobeto ezagutuko ditugula gerraren ankerkeriak. Eta kazetariak mikro-istorio horien ehizan aritzen dira gatazka guneetan. Txikitasunak, xehetasunak, mikroak ondo erakusten omen du makroa, handia, argazki orokorra.

Mikroa kontatzen hasita, eskertuko nuke kazetariak bestelako istorio txikiak kontatzea. Esaterako, euskal armagintza enpresetan egiten diren pieza txikerren istorioak. Misilak eta bestelako arma hilgarriak osatzeko ezinbestekoak diren txip, osagai eta gailu ttipiak non egiten diren zehaztasun guztiekin azaltzea. Horiek diseinatzen edo fabrikatzen dituzten langileen istorio koskorrek biltzea, esaterako. Ondo lo egiten al duten, irabazten duten soldatarekin zer ordaintzen duten... Armagintza enpresetako ugazabek irabazitako sosak zertan gastatzen dituzten jakitea ere interesgarria litzateke. Bidaia txikietan? Auto handietan? Ardo botila zaharretan? Golf zelai berdeetan? Jarri mikroa horiei ere, hitz egin dezaten.

Eta, kontatzen hasita, eskatuko nioke kazetari zintzoren bati kontatzeko armen osagai txiki horiek daramatzaten kontainerrak nola ontziratzen diren Bilboko portuan eta nora garraiatzen dituzten. Zein herrialdetako gerrak elikatzeko balioko duten, zenbat pertsona hiltzeko balioko duten, nortzuk aberasten diren... Estatistika txiki horiek, badakizue, mikro-istorioak.

Ideiak behar dituen kazetariren bat balego, esango nioke txukun eta irakurgarri argitaratzeko Eusko Jaurlaritzak eta bestelako erakunde publiko eta pribatuek nola kolaboratzen duten euskal armagintza enpresak babesten, dirulaguntzen edo kredituen bidez. Erreportaje txiki polit bat edo gehiago egin daiteke mikro-istorio horrekin ere. Hiltzeko balio duen industria horretan inbertitzen den dirutza nondik ateratzen den ere ezagutu nahiko nuke, albistegi labur batean bada ere. Baita bizitzarako ezinbestekoak diren beste arloei (osasungintzari, hezkuntzari eta abar) nola harrapatzen dioten dirua enpresa hiltzaile horietan xahutzeko. ■■■■

MIKROA KONTATZEN HASITA, ESKERTUKO NUKE KAZETARIEK BESTELAKO ISTORIO TXIKIAK KONTATZEA

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra

Anima zaitez!



info gehiago gure webgune eta sare sozialetan








943 20 32 44
 eibar@ameriaeskola.eus
 www.ameriaeskola.eus



"Ebarkizun baben oraina"



ArmeriaEskola



ArmeriaEskola^x

AURREMATRIKULA

MAIATZAREN 9tik 27ra

WASTETEKO PUBLIKO DOAKOA




- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- Administrazioa eta Finantza eskaintza portafolio arrazekidur
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
 INFORMAZIOAREN
 TEKNOLOGIEN
 INGURUNEETAN

www.uni.eus

Ostola 17/Errekalde, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 99 92 11 | idazkaritza@uni.eus | Rvni.eus

Eskerrik asko!



MIREN ALBERDI

Atzean geratu bada ere, 22. Korrikan izan den parte-hartzea eskertu nahi dugu Urolako AEK-tik. Beti bezala, kolosala izan da. Bailarako herrietan jaso dugun babesa itzela izan da, eta benetan, bihotzez, eskerrik asko!

Txanponak badu, ordea ifrentzua. Izan ere, Korrika ez da eguneko karrera soilik. Korrikaren helburua euskara eta euskal kultura bultzatzea da, euskara uneoro presente izatea, jendartea euskararen egoeraz kontzientziaztea, transmisioa bermatzea eta hitzekin ekitea. Horretarako, Korrikaren alderdi sendoa da Korrika kulturala; hori dugu Azkoitian hobetu beharreko puntua. Baina horretarako herriaren laguntza behar dugu, Korrika Batzordeetan parte hartuz. Azken horiek irekiak dira eta ideia edo proposamen oro izaten da ongi etorria bezain beharrezkoa.

Horrek, Korrika aitzakia hartuta, herriko euskaingintza saretzen du. Gainera, Korrikaren olatua datorrenerako herria girotzen laguntzen du. Horrela, arestian aipatutako lasterketa soiletik haragoko helburuak lortzen ditugu denon artean. Horixe da falta izan zaigun aletxoa.

Korrika iristeko hiru egun falta zirela, lasterketa igaro ondoren zer egitarau zegoen galdetu ziguten hainbat herritarrek. Eta, ezer ez zegoela jakitean, harrিতuta gelditu ziren. Egia

esan, polita izango litzateke: ostirala, oporrak, eguraldi polita... Baina, lehen esan bezala, horretarako herritarren laguntza behar dugu. Horrelako ekitaldi bat antolatzeak sukaldeko lan handia dauka: zer eta norentzat antolatut erabakitzea, baimenak eskatzea, eguna, tokia eta abar zehaztea; musikari, mago, bertsolari edo dena delakoarekin kontaktuan jarri eta agendak bateragarri egitea, beharrezko baliabideak lortzea, ekitaldiaren zabalkundea egitea eta jendea etorriko dela ziurtatzea... Eta, eguna iristen denean ere, hainbat lan eta ardura izaten dira. Pena handiz, baina amesten dugun Korrikaren egun hori aurten ez da posible izan. Ea 23. Korrikan herriak bat egiten duen gurekin eta denon artean aurretik aipatutako helburu horiek guztiak lortzen ditugun.

Garbi dagoena da Azkoitiko herriak bat egiten duela Korrikarekin. Izan ere, etortzen den orduan etortzen dela, harrera beroa jasotzen du Korrikak beti, eta giroan emozioa nabaritzen da. Halaber, xumeak izan badira ere, antolatutako ekintza guztietan jaso dugun erantzuna txalotzekoa izan da: Txerloiak Korrika Txikia, Xoxote mendirako irteera eta Korrika Txikia, adibidez. Beraz, grina, ilusioa eta hitza baditugu; orain ekintza da behar duguna. HitzEkin. ■■■

Bertsoa paperean

GAIA: Sare sozialak
Izena. Haritz Alberdi Alberdi
Doinua: *Leiho ertzetik entzun dezaket*

Instagramera argazki batzuk

igotzen ditut tarteka,
nire burua, nire kotxea
edo nire bizikleta,
aspaldi hontan topera nabil
jarraitzaileez beteta,
'influencer' etiketa
honi nola eman buelta (bis)
nahiz badakidan nire ardura
dela neure gogoeta
jarraitzaileek nik baino gehio
ezagutzen naute eta.

Saretik asko, sozial gutxi

ezin hobeto deskriba,
begiak itsu, faltsuak diren
intragamerrei begira,
hain urruneko pertsonak ere
gertuko sentitzen dira,
norberak bere desira,
ahalegin txiki bat, tira. (bis)
Nahi ez duenak ez begiratu,
alferrik ez egin tira,
eta bakoitzak erabil beza
komeni zaion neurrira!



IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

Guztiona, guztiontzat!



AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra

ONLINE
ikasgunea.euskadi.eus



Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

* Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK **ELIZANTZA**
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA **ELIZANTZA**
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA **ELIZANTZA**
- GIZARTERATZEA **ELIZANTZA**
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA **ELIZANTZA**

Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

Ziklo guztiak
euskara hutsean

* ELIZANTZA: ziklo bakoaren modulu bakoitzak **Inglatera** erregistroa duena.

www.izarraitz.eus



CFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHEI
Altamira s/ua 21/g 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tel: 943 85 21 74 - bulgoaga@izarraitz.eus
688 716 482 - www.izarraitz.eus



MILAR LARRAMENDI



WHIRLPOOL
MIKROUHIN LABEA AMW 442



BIZITZA ERRAZTUKO DIZUN ETXETRESNA BERRIA

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



FK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es